

Ikastetxearen helburak eta ildo estrategikoak.

1.Helburua:	
Ikasle guztien eta ikasle bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuta, heziketa osoa eskainiz, pertsona bezala gizarteko erronkei era autonomo eta kritikoan aurre egiteko gazte sortzaileak eta sustatzaileak prestatzea, herritar askeak eta zorionsuak izan daitezen.	
Arloa	Ildo estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektu curricularra • HIPI • BIDELAGUN • Curriculum aniztasuna • Elkarbizitza eta Hezkidetzaren Plana • IK-KI • Orientazio plana. • Hizkuntza Proiektua • Ingurumen programa, EA21 • Eskola jasangarria • E-inika. Koaderno digitala • Moodle • Intraneta, WEB orria 	a- Ikasle bakoitzaren egoerari (etxekoa eta ikastetxekoa) arreta jarriko diogu behar dituen formazioa eta titulazioa lor ditzan.
	b- Ikastetxe inklusiboa gara. Ikasle guztiek beren gaitasunak garatzeko aukera izan dezaten, eskolak lantzen duen hezkuntza ikasleen ezaugarrietan oinarrituta dago, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu egoki baten barruan. Premia bereziak dauzkaten ikasleen beharrei era egokian erantzuten saiatzen da.
	c- Ikastetxea anitza eta akonfesionala. Ideologiari dagokionez, politika eta erlijio alorretan anitza da eta halakoa izatea nahi dugu. Pluralismoa bultzatzen duen eskola gara, ume guztien izaera, iritziak eta agerpenak onartzen dituen eta ikasleek informazio mota ezberdinak modu objektibo batez jaso ditzaten saiatzen dena, horrela, pertsona kritikoak heziz
	d- Norberaren originaltasuna eta indibidualtasuna sustatzen duen ikastetxea izango gara, horretarako auto-ezagupena bultzatuz, autoestimua sustatuz eta norbere buruarekin zuhur jokatu.
	e- Emozioak, ahalmenak eta gaitasun guztiak garatzen dituen hezkuntza nahi dugu eta horretara bideratuko dugu curriculumara

2.Helburua:	
Tolerantziatzeko eta errespetuzko giroa sortzea Hezkuntza komunitateko kide guztien artean, gatazkak elkarriketaren eta parte-hartze arduratsuaren bidez konponduz.	
Arloa	Ildo estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> • IK/KI • Elkarbizitza plana • Hezkidetzaren proiektua • Kultur aniztasuna • Udal liburutegiarekin elkarlana. • Eguerdiko tailerrak • AG21 	a- Ikasleen artean dauden desberdintasunak konpentsatu, diskriminazio iturri izan ez daitezen, eskolako ingurunera egokitzeko bitartekoak jarri.
	b- Hezkidetzaren naturaltasunez bizitzen ahalegintzen da, sexuagatik bereizketarik izan ez dadin, nor bere sexualitatea, eta besteena onartzeko. Sexu-heziketako tabuak gainditzea eta hizkuntza ez sexistan hezteko dugu helburu.
	c- Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza sustatuko dugu, aurka doazen jarrerak eta ekintzak kritikoki aztertuz eta neurriak ezarri.
	d- Ikastetxeko kideen bizikidetzaren kudeaketa hobetu, bakoitzak bere erantzukizuna berenganatuz eta komunitate osoaren artean Bizikidetzaren plana aurrera eramanez.
	e- Ikaslee, irakasle eta gurasoen partaidetza bultzatu, beste taldeekin dituzten harremanak sendotzeko bideak ezarri eta aukerak sortuz.
	f- Ikasleen arteko gatazken aurrean, ikasleek eurek konponbidea bilatzeko izan behar duten autonomia aintzat hartu eta babestu. Gatazkak ematen direnean era baketsuan konpontzeko tresnak bideratu.

3. Helburua:

Ikasleek erantzukizun sozialaren zentzua garatzea, inguruan gertatzen denaz jabetu daitezen, ingurunearekiko jarrera arduratsua izanik

Arloa	Ildo estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> • Hezkidetzaren proiektua • Udal liburategiarekin elkarlana. • Eguerdiko tailerrak • Elkarbizitza plana • AG21 	a- Ikasleak ikasten duenak berarentzat baliagarria izan behar du ikasketa esanguratsuak izan daitezen, lantzen diren gaiak errealitatearekin eta gizartearekin lotuta egon behar dira.
	b- Eskola herrian txertatu, ikasleek inguru naturala, soziala, historikoa eta kulturalarekin harremanetan jarriko dituzten ekintzak bultzatuz. Inguruko errealitate sozialera egokitzeko joan behar gara eguneroko lanaren inguruan hausnarketa eginez, kalitatezko irakaskuntza lortzeko.
	c- Herriko kultura eta tradizioaren balore, sinismen eta jokaerak ezagutu, munduko beste herrialdeetako kulturekin hareman zabalak izateko.
	d- Ingurumena zaintzea eta berarekiko errespetua guztion erantzukizuna da, horregaitik, ikastetxean ohitura osasungarriak, berrerabiltzaileak eta jasangarriak landuko dira

4. Helburua:

Hezkuntza komunitate osoaren parte hartzea, elkarlana eta komunikazioa zaintzea. gure ikasleen jatorrizko ikastetxeekin eta Durangaldeko ikastetxeekin elkarlana koordinazioa eta komunikazioa sendotzea eta eragile ezberdinekin harremanak bultzatzea.

Arloa	Ildo estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxeko organoen osaketa eta antolaketa. • Intraneta./Web orria. /Moodle • Pedagogia batzorde eta batzorde informatiboaren antolaketa • Mintegien antolaketa eta koordinazioa. • Google apps • INIKA • Ikasleen jatorrizko ikastetxeekin eta Durangaldeko ikastetxeekin koordinazioa • Guraso elkartearen antolaketa eta koordinazioa. 	a- Ikastetxeko hezkuntza komunitatean (ikasle, guraso, irakasle, eta langile ez-irakasleak) komunikazioa eta harremanetarako tresnak indartuko ditugu. Helburu horrekin, guztien asmo, iritzi eta beharrezkoak bilduko ditugu, eta jorratu beharreko ildoak zehaztu eta ardurak era egokian banatuko ditugu. Egindakoaren berri kide guztiei azalduko diegu.
	b- Gure ikasleen jatorrizko ikastetxe publikoekin koordinazio eta elkarlanerako bideak eta tresnak jorratuko dira. Era berean, Durangaldeko inguruko beste ikastetxe, hezkuntza-eragile (administrazio, Berritzegune, elkarte...) eta gizarte-eragileekin ere harremanak landuko dira; horrela, udalarekin batera hiri hezitzaile kontzeptua zabalduko da. Izan ere, garrantzitsua da gizarteratzea, ikastetxetik ateratzea; ingurua hobeto ezagutzea eta inguruko errealitate horri egokitzea gure lana.
	c- Hezkuntza Proiektua eta Curriculum Proiektua gauzatzeko, irakasle eta mintegien arteko elkarlana eta koordinazioa indartu, "Mintegiak / Pedagogia Batzordea - Batzorde Informatiboa / Klaustroa/ Eskola Kontseilua " zirkuluz baliatuz.
	d- Eskola komunitateko kide guztien parte hartzea bultzatuko da. Guztiek tokia izan behar dute euren iritziak emateko eta erabakiak iritzi hauek errespetatuz hartu behar dira. Honetarako AJA-ROF dokumentuan bideak eta tresnak zehaztuko dira (ikasleen ordezkariak, eskola kontseilua, guraso elkarteak, klaustroa ...)

5. Helburua:

Gure hezkuntza zerbitzua euskalduna izango da eta eskola esparruko talde guztien komunikazio hizkuntza euskara izango da. Gurean euskal kultura eta inguruko ohiturak ezagutaraziko ditugu.

Arloa	Ildo estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza proiektua • Hizkuntza normalkuntza plana • AG21 • Web orria 	a- Euskara eta euskalduntze prozesua bultzatuko dugu. Horretarako, euskararen aldeko proiektuetan eskolako estamentuak inplikaraziko ditugu (ikasle, irakasle, gurasoak, langile ez-irakasleak).
	b- Irakasleek, eredu diren heinean, euskara bultzatzeko konpromiso berezia daukate.
	c- Gure ikastetxea, herria bezalaxe, euskalduna da, beraz euskara da gure eguneroko bizitzako eta ikasketetako hizkuntza nagusia. Euskararen zabalkuntza eta normalizazioa bultzatzen duten ekintzetan parte hartuko dugu.
	d- Euskararekiko auto-estima sendotuko dugu.

6. Helburua:

Berrikuntza proiektuei begira irakasleriaren formakuntza bultzatu eta erraztu, Ikastetxeko benetako eskakizunak eta beharizanak zeintzuk diren kontutan hartuz.

Arloa	Ildo estrategikoak
<ul style="list-style-type: none"> • Ikasketa kooperatiboa • Eleaniztasunerantz proiektua • IKT ikastetxe eredugarria • Eskola jasangarria • Eskola Agenda 21 • Sare Hezkuntza • Prestakuntza ikastaroak 	a- Institutuko langileen prestakuntza bultzatuko da, euren hazkunde profesionaleko beharizanei laguntzeko. Irakas-metodoak berri eta hobetuko ditugu; horretarako, irakasleen prestakuntza (metodologia zein teknologia aldetik) sustatuko dugu.
	b- Arlo pedagogikoan berrikuntza eta etengabeko hobekuntza bultzatzea; ikasle eta irakasleen rola eraldatuz.
	c- Berrikuntzan eta etengabeko hobekuntzan oinarritzen den prestakuntza irakasleentzat eta ez irakasleentzat sustatuko dugu.
	d- Teknologia berrien erabilpena bultzatuko da baldintza egokietan eta betiko baliabideetatik baliabide digitaletara pasatzeko ahalegin progresiboak egingo dira.
	e- Kalitatezko Hezkuntza kudeatzeko sistema ezarrita duen ikastetxea eta etengabeko hobekuntza planak bultzatzen dituen izango gara.
	f- Baliabide egokiak izaten saiatuko gara beti, instalazioak eta materialak behar diren moduan mantentzeko ahaleginak eginez.